**MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Produktu hau bezero jakin batentzat eginda egongo da, hala nola, **etxerik gabeko jendearentzat, armadako militarrentzat edo naturara txangoa egitera doan jendearentzat.**

- **Etxerik gabeko pertsonentzat oso beharrezkoa da arropa janztea, kalean lo egiten dutelako eta egun gehiena kalean ematen dutelako. Askotan, kalean, kartoiez edo bero handirik ematen ez duen beste material mota batez estalita ikus dezakegu jende hori**. Horretaz gain, gehienak espaloian egiten dute lo zuzenean, gainazal bigungarririk gabe, deseroso. Adibidez, urrutik pateretan datozen etorkinak, herrialdera iristen direnean mantekin estaltzen dituzte, baina uste dugu gure produktua erabiliko balute eraginkorragoa izango litzatekeela hotzik ez izateko.



- **Armadako miltar askok, zerbitzuan daudenean, askotan oso baldintza gogorretan dauden lekuetan lo egin behar izaten dute**. Lurra edo belarra bezalako lurretan lo egiten dute eta babesik gabe daude.



- **Naturara txangoan joaten diren pertsonentzat oso egokia izango da gure produktua. Ohituak baitaude izara eta edredoia dituen koltxoi batean lo egitera,**

**beraz, kanpoan haien etxea ez den beste inguru batean lo egiten dutenean antzeko lo egin nahiko dute (eroso) egoera kontuan hartuta.**



**Gure produktua aurrera egin dezakeela uste dugu, beti egongo baita bezero mota hau, merkatu potentzial izugarri bat daukagu. Zoritxarrez, pobreziaren ondorioz etxerik ez duen jendea dago oraindik, haien etxetik kanpo lo egin behar izango duten militarrak ere egongo dira**, eta azkenik, jende askori gustatzen zaio mendi-ibilbideak egitera joatea.

**Gure produktua, haren ezaugarriak eta nola saldu nahi dugun kontuan hartuta, aukerarik egokiena merkatu multilaterala dela erabaki dugu. Merkatu mota honetan, Garapenaren Nazioarteko Finantza Erakunde batek finantzatutako proiektu batean parte hartzeko negozio-aukerak daude; garapen bidean dauden herrialdeetako herritarren bizi-kalitatea hobetzera bideratzen dute haien jarduera, proiektu horiek eta laguntza teknikoak eginez**. Proiektu horiek nazioarteko eskaintza publikora aterako dira.